



Hiru abadegei oñatiar

Berrogeita hamabost urteko gorako oñatiarrik gehixenak gogoratuko dozue seguru asko zeintzuk ziran gaurko argazki honetan dakartzuegun hiru gizakume honeik. Ez lehenengo begirada batian biharbada, aspaldixoko fotografixia da-eta; baiña apur bat erreparau ezkerro eta emungo dotzuegun laguntasuntxuekin berihala ezagutuko dituzue estudiante dotoriok.

Hirurak herrikosemiak gittuan eta abadetzan ibili ziran urte askuan; bata araoztarra zan jatorriz, kaletarrak beste bixak; bi luzaruan egon ziran Oñatiko San Migel parrokixan alkarrekin, eta urtebetian-edo hirurak batera be jardun euen gure eliza nagusixan. Horrenbeste pistarekin honezkerro asmau dotzuegun, hona euren izenak eta xehetasunak zaharrenetik gaztiera:

- **Migel Díez Umerez** (1889-1957), erdixan eta jazarrirta daguena. Bittorixan egin zittuan eliza-ikasketak eta gazte-gaztetatik Oñatiko abade izan zan: sakristau eklesiastiko lez hasieran eta koadjutore moduan gero. Hainbat auzotako kapillau, Olabarrietakua esate baterako, eta Apostoluen Kofradixako arduradun be izan zan. Bere bizitzako azkenaldera herriko parrokotzai eruan eben hillabete batzuetan. Etorri haundiko hizlarixa izan ez arren, bere esaera kuriosuak betiko geratu dira txantxikuarron goguan.

- **Felix Arrazola Orueta** (1891-1971), zutik ezkerrian daguena. Araotzeko Migeleneko semia. Santanderreko Comillas-engan zittuan ikasketak eta, 1917xan abadetu ondoren, Aretxabaletako Arientzan eta Mondragueko Gesalibarren parrokotzai-ant eta Mutrikuko monjen kapillautzan jardun eben. Gero Oñatiko parrokixara etorri eta Koixkarreko elizako lehenengotariko kapillaua izan zan. Migel Díez hil zanian, parroko interino izentau euen, Jose Arandia 1957ko udazkenian bere karguaz jabetu artian.

- **Leandro Arrazola Gotxioa** (1892-1973), zutik eskuman daguena. Kale Barriko Konfitteruenian jaixo zan. Bittorixan ikasi eta 1917xan emun eben lehenengo mezia. Hainbat destinu tokau xakon: Arabako herritxoren batian parroko, Bergarako Santa Marina, Elgoibar eta Andoaineko koadjutore, eta Araotzeko parroko Errepublikan denporan; berriz bialdu euen Arabara gerra ostian erdi-zigortuta, eta handik Aretxabaletako Galartza auzora; 1956 aldera etorri zan Oñatiko San Migel parrokixara eta bertan irauan eben heriotzera arte.

J. E.

Fotografixia Arantxa Jauregiren bittartez eskuratu dogu. Argibidiak, barriz, Sabino Zuazabeitia eta Jabier Etxeberria parrokixako abadiak emun doskue. Eskerrik asko danoiri.



**ELKORO C.B.
KRISTALDEGIA**

San Lorentzo, 13
Lazarraga, 3 behea
Tfnoa: 78 24 06 OÑATI

**Ispiluak
Lunak
Beiradurak
Segurtasun-kristalak
Aluminiozko lechio
eta pertsianak
P.V.C.
Poliuretano
CLIMALIT**

ELORZA
Burdindegia eta brikolajea

Kale Barria, 17 Tfnoa: 78 07 80
OÑATI